

AGURRA

2014ko urtekaria duzue urtero moduan eskuan. Herritar asko izan dira urtekari honetan gure herriaren historiaz, istorio bitxiz, Hernaniko jendarteaz eta hernaniarrez idatzi dutenak. Lehenik eta behin, eskerrik asko zuei denoi, hernaniarroi gure herria ezagutarazten laguntzeagatik.

Eskuartean duzun "Hernani 2014" honetan gure historiari buruzko irakurgaietatik hasi eta gaur egun puri-purian dauden beste hainbat kontu aurkituko dituzue.

1014 urteko Hernaniko gogoetarekin hasten da urtekaria honetan, garai bateko Aita Orkolaga ezagutuko dugu, baita gaur egungo Ane Rodriguez eta Unai Corbella ere. Batzuk urte gehiago eta besteek gutxiago bete dituzte, baina hamaika urteurren ospatu ditugu 2014an, mende erdi bete duen Urumea Ikastola eta mende laurdena, Mugarri Festa adibidez. Ingurugiroak ere bere tarte du, noski, gure inguruan dugunaz jabetzea ezinbestekoa baita hura zaintzeko.

Bete-betea dator "Hernani 2014" urtekaria. Eskuartean duzuen irakurgai interesgarri hauekin, tarte atsegin bat igaro dezazuen opa nahi dizuegu.

Hernaniko Udal Gobernu Taldea